**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext. 930**
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**IDAZKARITZA**
idazkaritza@pasaia.net

***Alkatearen ebazpena, 2019/1093 zenbakiduna, 2019ko uztailaren 1ekoa, Pasaiako Udalerriko ekonomia eta merkataritza-garapenaren arloan ahalmenak eskuordetzeari buruzkoa:***

Honako arau hauek hartu dira kontuan: Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea (apirilaren 2koa), 23.4. artikulua; Udal Araudi Organikoa, 3.1.c) artikulua, 4. artikuluko azken paragrafoa; azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Tokiko Erakundeen Antolamendu, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen dituena, 43.3 eta 44. artikuluak. Horietan xedatutakoaren arabera, Alkatetza honek ondorengoa

**E R A B A K I  D U** :

**LEHENA.- LORE SUÁREZ LINAZASORO** zinegotzi andreari eskuordetzea ondorengo ahalmen eta eginkizunak:

- Alkatearen eta udalaren ordezkari izan, Pasaiako udalerriko EKONOMIA- ETA MERKATARITZA-GARAPENAREN arloan.
- Eskuordetu den arloarekin zerikusia duten gaiak bideratu edo horiei buruzko informazioa biltzen duten zerbitzu edo organo osagarriak koordinatu eta sustatu.
- Gure udalerriaren ekonomia- eta gizarte-garapena eta ekonomia-aniztasuna bultzatzen duten ekimenak sustatu, eta bereziki arrisku egoeran dauden kolektiboentzako enpleguan eragin.

***Resolución de la alcaldesa nº 1093/2019, de 1 de julio de 2019, sobre la delegación de competencias en materia de desarrollo económico local y el comercio del municipio de Pasaia:***

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 23.4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, y lo dispuesto en los artículos 3.1.c) y último párrafo del artículo 4 del Reglamento Orgánico Municipal, así como con lo dispuesto en los artículos 43.3 y 44 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, esta Alcaldía,

**R E S U E L V E**

**PRIMERO**.- Delegar en la concejala **Dª LORE SUÁREZ LINAZASORO** las siguientes atribuciones y funciones:

- Representar a la Sra. Alcaldesa y al Ayuntamiento en el ámbito del DESARROLLO ECONOMICO LOCAL Y EL COMERCIO del Municipio de Pasaia.
- Coordinar e impulsar los servicios y los órganos complementarios que en su caso tramiten o informen asuntos relacionados o que afecten al área de delegación.
- Impulsar las iniciativas que promuevan el desarrollo económico y social y la diversificación de la economía en nuestro municipio, con especial incidencia en el empleo para los colectivos en riesgo.

- Bertako ekonomiaren garapena sustatzen duten kezka eta ekimenak bildu.
- Merkatari txikiekin eta horiek ordezkatzen dituzten elkarteekin harremanak izan, horiei sektorearekin zerikusia duten udal izapide eta proiektuen berri eman, eta bereziki eurekin koordinatu Merkataritza Biziberritzeko Plan Estrategikoan jasotzen diren laguntzak.
- Pasaiako arrantza-sektorearen etorkizunari buruzko gogoeta egin, gainerako gizarte-, ekonomia- eta erakunde-eragileekin batera.
- Gure herriko gizarte- eta ekonomia-eragileekin harreman malguak izan, alor honetan udalerri eta eskualde mailan hartu behar diren erabakietan protagonista izan daitezen, eta gure garapenari laguntza emateko beste administrazioetan egin behar ditugun eskaerak elkarrekin egin ditzagun.
- Eskumena duen sailean gastuak erabaki, Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren arabera, kontratazio eta gastu txikien alorrean, eta baita alkatearen eskumenekoak direnetan; Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzarrari bere ahalmenak eskuordetzean ezarritako mugekin.

- Captar las inquietudes e iniciativas que promuevan el desarrollo económico local.
- Relacionarse con el sector del pequeño comercio y las Asociaciones representativas del mismo, informar a las mismas de las gestiones y proyectos municipales que afecten al sector y en especial la coordinación con el mismo de las ayudas dentro del Plan Estratégico para la Revitalización del Comercio.
- Impulsar junto con los diferentes agentes socio económicos e institucionales la reflexión acerca del futuro del sector pesquero en Pasaia.
- Mantener una relación fluida con todos los agentes socio económicos de nuestro pueblo, para que sean protagonistas de las decisiones que a nivel municipal y comarcal se deban adoptar en este campo y de las solicitudes que debamos hacer conjuntamente ante otras administraciones para que cooperen en nuestro desarrollo
- Disponer gastos en el área de su competencia según la Norma de Ejecución Presupuestaria en el apartado de contratación y gastos menores y las de competencia de la Sra. Alcaldesa con los límites establecidos en la delegación de atribuciones de la Alcaldía a la Junta de Gobierno Local.

**BIGARRENA.-** Udalbatzari ebazpen honen berri ematea, egiten den lehenengo batzarrean, izendatu denari zuzenean jakinaraztea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta udal web orrialdean argitaratzea.

**SEGUNDO.-** Dar cuenta de la presente resolución al Ayuntamiento en Pleno en la primera sesión que celebre, notificándolo personalmente a la designada y publicar en extracto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el Tablón de Edictos de la Casa

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext. 930**
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**IDAZKARITZA**
idazkaritza@pasaia.net

Consistorial y en la web municipal.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau eman eta hurrengo egunetik aurrera izango da eraginkorra.

**TERCERO.-** La presente resolución tendrá efectividad a partir del día siguiente al de su fecha.

**LAUGARRENA.-** Eskuordetze hau zabaldu edo baliogabetu ahal izango da, alkateak hala erabakiko balu, Legeak ezartzen dituen betebeharrekin bat.

**CUARTO.-** La presente delegación podrá ser ampliada o revocada cuando así lo decida la Sra. Alcaldesa de acuerdo con las formalidades que establece la Ley.

Pasaian, 2019ko uztailaren 2an

ALKATEA

Izaskun Gómez Cermeño